

Donostian, 2016ko maiatzaren 5ran

Jaun/andre hori:

Ingurumen sailburuordearen 2015eko uztailaren 1eko Ebazpenak, Aizmendiko hondakin inerte eta ez-arriskutsuetarako Aizmendiko zabortegian Ingurumen Baimen Integratua aldatu eta eraginkor bihurtzen duenak, xedatutakoaren arabera, aurretik egindako onarpen-agiriak berraztertu eta bertan xedatutakora moldatu beharko dira.

Honekin batera, Aizmendiko zabortegian onarpen-irizpideei eta IKS eeM erabiliz izapideei buruzko informazioa bidaltzen dizuegu.

Lehenik eta behin, zabortegian **hiru zona bereizi** daude bakoitzean gauzatutako eragiketen arabera eta **gune bakoitzean onar daitezkeen hondakinak** desberdinak izango dira:

- **Eraikuntza eta eraispeneko hondakinei balioa emateko gunea (R5 kudeaketa-eragiketa):** hormigoia, adreiluak, zeramikazko materialak eta horien nahasketak.
- **Ondoren kanpoan balioa emateko, hondakin ez-arriskutsuetarako sailkapen-gunea (R13 kudeaketa-eragiketa):** plastikoa eta beira laua.
- **Isurketaren eremuan botatzea (D5 kudeaketa-eragiketa):** aurreko kategoriatan sartzen ez diren hondakinatarako.

Bidaia berean ezingo dira gune desberdinetako hondakinak batera eraman, zabortegiaren antolaketa berria kontuan hartuta.

Aizmendiko zabortegira badator, zuk sortutako hondakinari Ingurumen Baimen Integratuak I.b) eranskinean sartzen duen LER kodea dagokio eta, beraz, aldeztu aurretik dokumentuen bidez egiaztatu beharko dituzu dagokion ingurumen-organoaren aurrean (Ingurumen Sailburuordetza) IKS eeM sistema erabiliz hurrengo alderdiak:

- a) Ispiluaren sarrera duen hondakina (jatorri berdina izanik, hondakinen zerrenda europarrean kodea hondakina arriskutsua edo ez-arriskutsua izatearen arabera) bada, hondakinaren arriskugarritasunaren ezaugarria definitu beharko da, Kontseiluaren 91/689/EEk, 1991ko abenduaren 12koak, hondakin arriskutsuei buruzkoak, III. eranskinean xedatutakoarekin bat [1991-12-31ko DO L 377, 20. or.; azkeneko aldaketa 31/1994/EE Zuzentarauak (1994-07-02ko DO L 168, 28. or.) osatzen du. Helburua LER kodea esleitzea da. Arriskugarritasunaren ezaugarriak zehazteko, Eusko Jaurlaritzako Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuari (servicio-rtp@ej-gv.es) karakterizazioaren proposamena egitea gomendatzen da, analisiak egiteko orduan optimizatzeko xedez.

Arriskugarritasunaren ezaugarriak zehaztu ostean, azkenean, hondakin ez-arriskutsuaren LER kodea esleitzen bazaio:

- b) Errege Dekretuaren arabera oinarritzko karakterizazio-txostena (*edukia erantsia dago*).

- c) Lixibiatuari buruzko saiakuntza
- d) LER kode hori kudeatzeko baimena duen balio-emailearen edo berreskuratzailerearen onarpen-agiri negatiboa:
http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/rnp/es_def/adjuntos/gestores_rnp_cer_es.pdf.
- e) Hondakin horretarako onarpen-eskaera aurkeztea.
- f) Dokumentazio guztia IKS eeM sistemaren bitartez izapidetzea.

Ingurumen-organoak baliozkotu behar dituen onarpen-eskaera eta dokumentazioa aurkezten denetik zenbatzen hasita hamar (10) egun igarotakoan berariaz jakinarazpenik izan gabe, San Markoko Mankomunitateak onarpen prozesuarekin eta proposatutako hondakina kudeatzearekin aurrera egin ahal izango du.

ONARRIZKO KARAKTERIZAZIO TXOSTENA

Hondakinen ezaugarriak eta analisi-metodo normalizatuen arabera lixibiazio-portaera zehaztean datza. Halaber, betetze-probatan egiaztatuko diren parametroak hautatuko dira.

Oinarrizko karakterizazioaren edukia: (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, zabortegean isurita hondakinak deuseztatzea eta betelanak egitea arautzen duena):

- *Hondakinaren iturria eta jatorria.*
- *Hondakina sortzen den prozesuari buruzko informazioa (lehengaien eta produktuen deskribapena eta ezaugarriak), homogeneotasun-maila.*
- *Hondakinaren itxura:* usainaren deskribapena, forma fisikoa (granularra, harea, lohi lehortua, zorua, etab.), kolorearen deskribapena.
Gutxienez koloretan hondakinaren bi argazki erantsiko dira, horietan eskala grafikoa eta data sartuz. Argazki bat 5 m-tik beherako distantzian lortutako bista orokorra izango da eta beste bat xehetasunekin 1 m-tik beherako distantzian. Hondakina heterogeneoa edo nahastearen ondorioz sortutakoa bada, nahastea osatzen duen hondakin bakoitzaren xehetasun-argazkia erantsiko da.
- *Zabortegei buruzko 99/31/EE Zuzentarauak 6.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, zabortegean bota baino lehen hondakinari aplikatutako *tratamendua deskribatzea* edo teknikoki, ekonomikoki ala ingurumenaren ikuspegitik bideragarria ez den tratamendurik ez dagoela edo egonez gero, zabortegetara bideratutako hondakinen bolumena edo arriskugarritasuna ez duela murrizten justifikatzea.*
- *Hondakinei balioa eman edo birziklatzeko aukera egiaztatzea.*
Zabortegean ezin daitezke onar balioa eman dakizkien hondakinak. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan balioa izan dezaketen hondakintzat honakoak jotzen dira: papera-kartoia, metalak, eraikuntza- eta eraipen-hondakinak, beira, egurra, ontziak, toner- eta tinta-kartutxoak.
Zerrenda hau zabalduz joango da, hondakin berriei balioa emateko kudeatzaile baimenduak sortzen diren neurrian.
- *Hondakinen zerrenda europarrarekin (LER) bat kodea.* 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen Erabakia, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzen duena, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat (2014ko abenduaren 30eko EBAOn argitaratua)
- *Hondakinak hondakinen zerrenda europarrean (LER) ispilu sarrera duenez, arriskugarritasunari buruzko ezaugarriak zehaztea.*

- Zabortegei buruzko 99/31/EE Zuzentaraua 5.3. artikuluan edo 1481/2001 Errege Dekretua betetzen dituelako, *hondakina zabortegeian onar daitekeela frogatzen duen informazioa*.
- Bidezkoa bada, *zabortegeian hartu behar diren neurri egokiak* hondakinak maneiatzeko (adibidez beroak irits daitezkeen hondakinen kasuan, etab.).
- *Lixibiazioaren portaerari* buruzko datuak.
- *Parametro kritikoak eta adostasun-proben aldizkakotasuna* zehaztea, 1.8. eta 2.1. ataletako irizpideekin bat.

Lixibiatuaren saiakuntza:

Laginak hartzea: Hondakinaren ekoizlearekiko erakunde independenteek hartuko dituzte. 2003/33/EE Erabakian definitutako helburuak beteko dira.

Saiakuntzen laborategiek hurrengo ezaugarriak izango dituzte:

- Hondakinaren ekoizlearekiko independenteak.
- ENAC erakundeak *ingurumenaren arloa: hondakinak eta aztertutako parametroak zehaztea* atalean ziurtatua (*Laborategi homologatuen zerrenda honako helbidean kontsulta daiteke: www.enac.es*).
Laborategi ziurtatu batek analisiak egitea azpikontratatzan badu, laborategi bakoitzak lortutako emaitzei buruzko txosten osoak, behar bezala sinatuak, erantsi beharko dira.

Parametroak

As, Cd, Cr Total, Cu, Hg, Mo, Ni, Pb, Sb, Se, Zn, Fluoruroa, Ba, Kloruroa, Sulfatoa, STD, COD.

Onarpen-mugak

Lixibiatuen saiakuntzen ondorioz, zabortegei bakoitzerako onar daitezkeen balioen mugak [49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak](#), hondakinak zabortegeian isuriz deuseztatzea eta betelanak gauzatzea arautzen dituenak, [2. ERANSKINEKO 1. taulan](#) definitzen ditu.

Saiakuntzaren metodoak

Hondakinen laginketa:

UNE-EN 14899:2007 Hondakinen karakterizazioa. Hondakin-materialen laginketa. Laginketa-plana prestatu eta aplikatzeko baldintzak.

Hondakinen ezaugarri orokorrak:

UNE EN 13137:2002 Hondakinen karakterizazioa. Hondakin, lohi eta sedimentuetan Guztizko Karbono Organikoa (GKO) zehaztea.

PNE EN 14346 Hondakinen karakterizazioa. Hondakin lehorra edo uretan edukia zehaztuz materia lehorra kalkulatzeko.

Hondakin gordinen digestioa:

UNE-EN 13656:2003 Hondakinen karakterizazioa. Azido fluorhidriko (HF), azido nitriko (HNO₃) eta azido klorhidrikoaren (HCl) nahasketarekin digestioa, mikrouhinekin lagunduta, ondoren, elementuak zehazteko.

UNE-EN 13657:2003 Hondakinen karakterizazioa. Ur aberatsean digestioa, gero, hondakin disolbagarrietan elementuen zatia zehazteko.

Lixibiazioaren probak:

UNE-EN 12457-4:2003 Hondakinen karakterizazioa. Lixibiazioa. Hondakin granular eta lohien lixibiatuetarako adostasunaren saiakuntza. 4. zatia: loteka bi etapen saiakuntza 10 l/kg-ko likido-solido erlazioarekin 10 mm-tik beherako partikularen tamaina duten materialetarako (tamaina murriztuta edo gabe).

Bakarrik metodo honen arabera lortutako emaitzak zabortegi-mota batean onartzeko balio mugak gainditzen dituzenean, baina hiru aldiz baino gehiago ez denean (Guztizko Solido Disolbatuak parametroaren kasuan izan ezik, perkolazioaren testean balio mugarik ez baitu finkatzen), perkolazioaren testa (PNE-CEN/TS 14405) egin daiteke eta onartzeko irizpide bezala test horretarako xedatutako onarpen-balio mugak aplika daitezke:

Saiakuntzen edukia

Txostenak UNE EN 12457-4:2003 arauaren C eranskinean sartutako ereduaren arabera egingo dira.

Betetze-probak egin behar dituzten parametro kritikoak zehaztea

Hondakin baten lixibiazio saiakuntzari buruzko analisiaren emaitzetatik abiatuta, zabortegi-mota kontuan hartuta, hondakinak onartzeko finkatzen diren lixibiazioaren balio mugak % 75ean gainditzen edo berdintzen badira, parametro kritikotzat joko dira eta, ondorioz, aldizka betetze-probak izan beharko dituzte (2. maila).

Proposatutako zabortegi-mota kontuan hartuta, emaitza analitiko guztiak lixibiatuaren balio mugaren % 75etik behera dituzten hondakinen kasuan, betetze-probetarako parametro esangarritzat mugaren % 75era gehien hurbiltzen diren bi parametroak hartuko dira.

Honekin batera eskatutakoa betetzeko (arriskugarritasunaren ezaugarriak zehaztea, lixibiazioari buruzko saiakuntza eta oinarriko karakterizazio txostena, *49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, zabortegian isuriz hondakinak deuseztatzea eta betelanak gauzatzea arautzen duenak*, xedatutakoaren arabera) lagungarriak izan daitezkeen erreferentziak eranstean dizkizut:

APPLUS

Iparraldeko Ingurumen Saila
Fernando Llaca Martínez
Lehendakari Agirre, 9-5. solairua
48014 Bilbo
Telefonoa: 94 476 11 90
e-maila: flaca@appluscorp.com

TECNALABAQUA

Arabako Teknologia Parkea
Leonardo da Vinci kalea, 11
01510 Miñano - Araba
Telefonoa: 945 29 81 52
<http://www.tecnalabaqua.es/servicios/inspeccion/>

Hori guztia lehenengo kontrol-mailan, oinarrizko karakterizazioa izenekoan, sartzen da. Hondakina onartu ondoren, bigarren maila, **betetze-probak** izenekoak, bete beharko da. Horretan aldizka parametro zehatzen (parametro kritikoak, bere egunean emandako onarpen-baldintzak edo erreferentziazko irizpide bereziak betetzen al diren zehazten dituztenak) lixibiazio-portaera egiaztatuko da. Aldizkakotasuna honako moduan zehazten da:

- Urtean 200 t/urte hondakin baino gehiago sortzen bada, zabortegira bidalitako 200 tonako.
- Urtean 200 t/urte hondakin baino gutxiago sortzen bada, probak urtean behin egingo dira.

Onarpen-irizpide berrietan xedatutakora zure enpresa errazago moldatzeko, iragaite-denboraldia duzu **2016ko ekainaren 15era arte**. Epe horretan **IKS eeM sistemaren bidez hondakinen kudeaketa** irizpide berrietara **egokitu beharko duzu**. Epea amaitutakoan, onarpen-irizpide berri hauen aurretik lortutako onarpen-dokumentu guztiak baliogabetuko dira.

IKS eeM sistemaren bidez hondakinak kudeatzeko eskuliburua nahi baduzu, eskatu honako posta elektronikoaren helbidean: sanmarko@mandoiagestion.biz

Argitu nahi duzun edozein zalantzarako arreta-telefonoa : 943 02 19 33 edo 943 33 68 80.

Adeitasunez,